

# LIT.<sup>A</sup> VASCONGADA

## MAMI

(BAKARIZKETA)

Iruditegiak aurkestatzen du ostatu bateko atariya, eta au, nola baserrikua baitan, agertuko dira enbor koskor bi, gurdi zar kurpill gabeko bat bere ondoan belar batekin (*Mami arlote ichuran azalduko da*).

**B**i ordu badira onezkero eziñ auzarturik naguela ostatu untara sartzez. ¿Nola sartuko naiz baldin patrikarak utzak badauzkat?

Zenbait bezelako auzarditsua banitz, bapo gozaldtu, eta aldegingo nuke esanaz, ez daukat dirurik, eta nai dubena egin beza nerekin echekoandre: ¿bañan dirurik ez badet nola echekoandriak egin lezake nai dubena nerekin?

Berak eman, nik eskatzen diyotana, eta nik ematen ez badiyot berak eskatzen ditana zer egin bear du? Soñua jo ta dantzatu. ¿Bañan nik ez badiyot soñukairik ematen? Jantzi dezala idi zarraren lepoko joalia, eta eragiñaz berari dantzatu liteke nai duben eran.

Zortzi egun badira nere barrunen gauza berorik sartu ez dala, oya ikusi ez detala berriz izango dira..... Jaungoikuak lagun onezkero zenbat urte.

Badakit, chit ongi dakit izango dirala asko esango dutenak, Mami dabillen bezela ikustia gauza kupigarriya da ori izan danarekin, bañan, bere zabarkeriyaren bitartez dabill orla.

Irabazpidezko lanari era bat utzi ziyon ezkerro, lengo adiskide guztiyak, farra egiten diyote, iñork ez du begiz ere ikusi nai, eta norbaiten aldamenen jartzen bada igesten dira andik, baztangaren nazkata-sunak ematen duben baño bildur geyakorekin.

Au guztiya esango dutela chit ongi dakit, eta arrazoi aundiz mintzatzen dirala ere bai, bañan ni ez naiz lanerako jayo, eta ez det egingo.

¿Astakeri aundiyagorik alda bada gaur? Lana egiten dubenaren gain daude Dierri guztiyaren zorrak, langilliak pagatu bear ditu guztiyak, bañan beñere gertatuko ez dan artzekorik gertatuko balitz, langillia baño lenagokuak izango lirake artzeko oriyek jasotzeko.

¿Abek guztiyak orla dirala zertarako lana egin? ¿Zer aurrerakisun dauzkagu bada lana egiñarekin? Astoak izketan baleki esango luke arrazoi aundiz ni jayo nitzanian nere amak pullakada bat eman izan baziran buruan eta ill baninduben mesede aundizko gauza egingo zuben neretzat.

¿Zeren utsegitian bidez ibilli bear det beti bizkarra zamapean, eta mantzo banabill zergatik jipoatzen naute? ¿Zergatik ez dituzte nere eginkisunak trukutzen zerriyarenakin? ¿Nik egin bear al det zerriya, gudi, gudi etzanda egon dediñ? Ni ere zerriya bezela egongo nitzake alferkerizko biziera igaroaz bañan, astoa izan astoa eta nik egin bear guztiyantzat.

¿Ez al luke bada astoak arrazoi izango au esanarekin? Bai, eta aundiya: au bera gertatzen da bada gizartean ere; langilliak egin bear alfer zalla ondo eta lasai bizi dediñ; bañan alferkeritzan ondo ikasiya izan bear du batek, bitarteko onan arrimuan. Orain norbaitek galde-tuko balirake astoa edo zerri izan nai nukien, erantzungo niyoke eze-ren kupida gabe: zerri, zerri izan nai det nik, batez ere oroiturik esaera zar batek diyona; zenbat eta zerriyago dan bat, orduan ta gizenago agertzen da.

Orain, norbait auzartu liteke esatea neri, ni orren alferra izanik ez naguela gizen, zeñari esango niyoken mingañen toteltasun gabe: eiñtegi oneko eta jabe onaren zerriya gizenzen dala baldiñ azpi onak badauzka: bañan ni nola naizen gauza bearreko abek gabia argaltasunak mendian artua nauka zerri gozetiya bezela, arrimo eta jabe gabia naizelako. Ni sayatuko nitzake lanian, ¿bañan nere sayatzian ordañak bestek jan bear baditu zertarako sayatu? Ez, ez: nayako det alfer bizi erdi goziak biziko banaiz ere, eta batere kupida gabe esan liteke zerri izatia ohea dala, asto, makilla mendekua baño.

Zerriyak gauza char bat bakarra izaten du, maite duten ichuran ondo bazkatuaz gizendu, eta labanaz illtzia: bañan astoa, beti kemen onekua dagon bitartian, zamapian eta makillan mendian bizitzen da,

---

eta kemen gabetzen danian mallukada batez edo sutunpez illtzen dute, bere bizi guztiyan egin duben lanaren ordañetan.

¿Zenek irabazi du geyena beretzat biziya iraun diyoten bitartian?

Buru nekatze aundirik ez du eskatzen galdeera onek; orrengatik nai det beti zerri izan, banan argala; zergatik gizentzen dana bakarrik illtzen duten, bada mami guchikua bizitzen da luzaro, iñori ezkintzerik izaten ez dalako eta nork artua guchiyago. Gisa ontan nabill ni ere; alferra naizelako iñork ez du nai nere izatea, bada gizona banitz, zapelaitzak chito jabe egin nai izaten duten bezela jabetu naiko luteke askok nitzaz ere.

Egiya esan bear badet, nayago det zerri izan eta ez asto; asko bizi diran bezela, bada jakiña dago astoaren egitekua dala bizkar gañean pentzu ona zerriarentzat eramatia.

(Ichedon) Orrenbeste denborako berriketakin gozia ugaritzen dijua. kit, eta onena izango det, ostatu ontan sartu, eta bazkaltzia kosta ala kosta, naiz ez pagatu; zergatik nik jango detana ematen badit echeko-andriak pagatua egongo da, eta ala ez badago ere neri zer ajola zait, artzeko dunak eskatuko diyo eta paga dezayola. ¿Bañan nik zergatik pagatu bear det su gañeko ontziyak uztutzia? ¿Ustutzeko ez al ditu betetzen?

Bada išilik egoten ez bada, pagatu egin bearko dit nere uztuketako piontza lana; erri batzar edo ayuntamentuak ez ditu uztu arazten zimaurdy zuluetakoa urak ere muzu truke, pagatu egin bear izaten zayo, eta ez guchi alare.

(Eskura chistua botiaz) Ea bada, koajetsu koajetsu egiñik sar nadiñ barrura kezka gabe t'ta iñor badago (oinkada batean sartzen da) begira, ajolik gabe antziak Mami.

JUAN INAZIO URANGA.

---